t) Erregistro Orokorra kudeatzea, baita indarrean dagoen legediaren arabera antolaketa eta informatikaren arloetan Sailari dagozkion eskumenak kudeatzea.

u) Titulartasun publikoko etxebizitzak, eranskinak eta lokal komertzialak administratu eta kudeatzea.

2.– Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita geratuko da Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Berezia, eta indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkion eginkizunak garatuko ditu.

## III. KAPITULUA
## ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA

***9. artikulua.***– Etxebizitza Sailburuordetza.

1.– Etxebizitza Sailburuordetza, sailburuaren zuzendaritzapean, honako jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzen ditu:

a) Lurzorua eta hirigintza.

b) Etxebizitza.

c) Arkitektura, eraikuntza, eta eraikuntzaren iraunkortasuna eta kalitatea.

d) Irisgarritasunaren sustapena.

2.– Dekretu honen 6. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitza Sailburuordetzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du sailburuordetza horrek:

a) Lurzoruari, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko politikaren plangintza eta gauzatzea ikuskatzea eta zuzentzea.

q) Asegurar el óptimo funcionamiento de los servicios de información y atención al ciudadano del Departamento (niveles 2 y 3 de atención), así como articular adecuadamente las relaciones con el servicio de atención al ciudadano del Gobierno -Zuzenean- asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial.

r) En relación con la sociedad pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A., resolver reclamaciones, fijar indemnizaciones y acordar el resto de medidas que establece el artículo 101 de la Ley 31/2007, de 30 de octubre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales, en relación a las contrataciones que deban incluirse en el ámbito de aplicación de dicha Ley.

s) Ejercer las funciones atribuidas a cada Departamento por el artículo 10 del Decreto 67/1998, de 7 de abril, por el que se regula la actividad editorial de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

t) Gestionar el registro general así como las competencias que según la vigente legislación correspondan al Departamento en materia de organización e informática.

u) La administración y gestión de las viviendas, anejos y locales comerciales de titularidad pública

2.– Queda adscrito a la Dirección de Servicios, el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes que desarrollará las funciones que le atribuye la normativa en vigor.

## CAPÍTULO III
## VICECONSEJERÍA DE VIVIENDA

***Artículo 9.***– Viceconsejería de Vivienda.

1.– La Viceconsejería de Vivienda, bajo la superior dirección del Consejero del Departamento, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Suelo y urbanismo.

b) Vivienda.

c) Arquitectura, edificación, sostenibilidad y calidad en la construcción.

d) Promoción de la accesibilidad.

2.– A la Viceconsejería de Vivienda le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La supervisión y dirección de la planificación y ejecución de la política de suelo, urbanismo y vivienda.

b) Iraunkortasuna sustatzea, hiri-garapena eta arkitektura orientatzeko funtsezkoa den aldetik.

c) Irisgarritasuna bultzatu eta sustatzea.

d) Andeatutako hiri-areak eta birgaitze integratuko areak onera ekartzeko lanak bultzatu eta sustatzea, Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitutako eskumenak bazter utzi gabe.

e) Nahitaezko desjabetzeen gastuak baimentzea, edozein zenbatekotara iristen direla ere.

f) Organikoki mendeko izango dituen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak koordinatu, antolatu eta zuzentzea, dagozkien zuzendarien mendetasun funtzionala aparte utzi gabe.

2.– Honako zuzendaritza hauek Etxebizitza Sailburuordetzaren zuzeneko ardura hierarkikokoaren mendean daude: Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza baita Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak ere.

***10. artikulua.***– Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Arau-proiektuak egitea lurzoru eta hirigintza arloan.

b) Izapideak egitea, eta, hala badagokio, hiri-antolamenduko eta lurzoruko tresnak lantzea, bai eta tresna horiek baliatzeko gestioak egitea ere, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen esparruan.

c) Hiri-antolamenduko eta lurzoruko tresnei buruzko txostenak egitea, Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen funtzionamenduaren esparruan, eta Sailaren berezko eskumenei loturik.

d) Birgaitze integratuko areak eta area andeatuak deklaratzea, urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeari begira.

e) Konpromiso-akordioen eta lankidetza-hitzarmenen negoziazioa, idazkuntza, izapidetzea eta jarraipena pertsona fisiko eta juridikoekin eta herri-administrazioekin, lurra edota eraikinak lortzeko eta hirigintza-antolamendua eta -kudeaketa gauzatzeko, babes publikoko etxebizitzak eta txandakako alojamenduak sustatzeko.

b) La promoción de la sostenibilidad como elemento orientador del desarrollo urbano y de la arquitectura.

c) El impulso, promoción y fomento de la accesibilidad.

d) El impulso y promoción de la regeneración de zonas urbanas degradadas y de áreas de rehabilitación integrada, sin perjuicio de las competencias atribuidas al Departamento de Economía y Hacienda.

e) Autorizar los gastos en las expropiaciones forzosas cualquiera que fuera su cuantía.

f) Coordinar, organizar y dirigir las Delegaciones Territoriales de Vivienda del Departamento Vivienda, Obras Públicas y Transportes que dependerán orgánicamente de la misma, sin perjuicio de la dependencia funcional de los y las Directoras respectivas.

2.– De la Viceconsejería de Vivienda dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Suelo y Urbanismo, la Dirección de Vivienda, Innovación y Control, la Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda y las Delegaciones Territoriales de Vivienda del Departamento Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

***Artículo 10.***– Dirección de Suelo y Urbanismo.

A la Dirección de Suelo y Urbanismo le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración de proyectos normativos en materia de suelo y urbanismo.

b) La tramitación, y la elaboración en su caso, de los instrumentos de ordenación urbana y del suelo y la gestión de su ejecución en el ámbito de las competencias del Gobierno Vasco.

c) La elaboración de informes sobre los instrumentos de ordenación urbana y del suelo, en el ámbito del funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco, y en relación a las competencias propias del Departamento.

d) La declaración, a efectos de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, de las áreas de rehabilitación integrada y áreas degradadas.

e) La negociación, redacción, tramitación y seguimiento de acuerdos de compromiso y convenios de colaboración con personas físicas, jurídicas y administraciones públicas, en orden a la obtención de suelo y/o edificaciones existentes, a la ordenación y gestión urbanística, para la promoción de viviendas de protección pública y alojamientos rotacionales.

f) Sustapen publikoko eremuak urbanizatzeko obren gauzatzea planifikatu, programatu, kudeatu eta kontrolatzea.

g) Euskadiko Ondareari buruzko Legean aurreikusitakoaren esparruan Sailari esleitu zaion titulartasun publikoko lurzorua administratzea, eta lurzoru horren berariazko inbentarioa egitea, antolatzea eta kontrolatzea, aipatutako Legean aurreikusitakoa betez.

h) Informazio geografikoko sistemak garatzea, eguneratzea eta mantentzea, non hirigintzako esparru eta sustapenak identifikatuko diren.

i) Sailak garatutako jardueren eta beste sail batzuek agindutakoen ondorio diren desjabetze-espedienteak izapidetzea eta balio justuak eta berriz kokatzeko eskubideak onartzea.

j) Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzen eginkizunen koordinazioa, Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiei eta Lurzorua Balioesteko Batzorde Teknikoari dagozkionean.

k) Sailak parte hartuko duen ondare-eragiketen eraginpeko eraikinen balorazio teknikoak egitea, haren eginkizunak betez eta Ekonomia eta Ogasun Sailarekin elkarlanean, bai eta beste eraikin batzuen balorazioak egitea edo haiek egiten laguntzea ere, Sail horren eskaerari erantzunez.

l) Materialak, ereduak, artikuluak eta lan-gertakariak prestatzea eta diseinatzea, betiere dibulgaziozkoak eta lurzoru- eta hirigintza-arloko araudiari dagokionez.

m) Etxebizitzen promozio adostuei dagokien deialdia, kudeaketa eta etekinak esleitzea.

***11. artikulua.***– Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Honako arlo hauei buruzko arauzko proiektuak egitea: etxegintza, birgaitzea, iraunkortasuna, berrikuntza teknikoa eta eraikuntzaren kalitatea. Etxegintza iraunkorreko eta energia-eraginkortasuneko arloan ziurtagiriak kudeatu eta ematea.

b) Hirigintza eta eraikuntza iraunkorrak bultzatzeko sustapen-jarduerak.

c) Sustapen zuzeneko etxebizitza sozialen arloko obren gauzatzea planifikatu, programatu, kudeatu eta kontrolatzea.

d) Eraikinak birgaitzea, baita azterlanak egin eta kontratatzea, eta plangintza eta berariazko ekintzak

f) La planificación, programación, gestión y control de la ejecución de las obras de urbanización de los polígonos de promoción pública.

g) La administración del suelo de titularidad pública adscrito al Departamento, en el marco de lo previsto en la Ley de Patrimonio de Euskadi, y la elaboración, organización y control de inventario específico del mismo, con sujeción a lo previsto en la citada Ley.

h) El desarrollo, actualización y mantenimiento de sistemas de información geográfica en los que se identifiquen los ámbitos y promociones urbanísticas.

i) La tramitación de expedientes expropiatorios y aprobación de los justiprecios y derechos de realojo derivados de las actuaciones desarrolladas por el Departamento, y las encomendadas por otros Departamentos.

j) La coordinación de las funciones de las Delegaciones Territoriales de Vivienda relativas a los Jurados Territoriales de Expropiación forzosa así como a la Comisión Técnica de Valoración de Suelo.

k) La realización de las valoraciones técnicas de inmuebles sujetos a operaciones patrimoniales en las que participe el Departamento en el ejercicio de sus funciones, en colaboración con el Departamento de Economía y Hacienda, así como la realización de otras valoraciones de inmuebles o colaboración en su realización, a instancia de dicho Departamento.

l) La preparación y diseño de la elaboración de materiales, modelos, artículos y eventos de trabajo y divulgativas en relación con normativa en materia de suelo y urbanismo.

m) La convocatoria, gestión y adjudicación de los beneficios correspondientes a las promociones concertadas de viviendas.

***Artículo 11.***– Dirección de Vivienda, Innovación y Control.

A la Dirección de Vivienda, Innovación y Control le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración de proyectos normativos en materia de edificación, rehabilitación, sostenibilidad, innovación técnica y calidad de la construcción. La gestión y concesión de certificaciones en materia de edificación sostenible y eficiencia energética.

b) Las actividades de fomento para el impulso del urbanismo y la edificación sostenibles.

c) La planificación, programación, gestión y control de la ejecución de obras en materia de viviendas sociales de promoción directa.

d) La rehabilitación de edificios así como la realización y contratación de estudios, planificación y

egitea ere, betiere hiri-birgaitze eta -biziberritzearen arloan.

e) Arkitektura-proiektuak idaztea.

f) Memoriak eta oinarri teknikoen pleguak idaztea lanak eta lan-proiektuak kontratatzeko.

g) Etxebizitza sozialak edota zuzkidura-alojamenduak sustatzerakoan obrak zuzendu eta ikuskatzea.

h) Sailak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzen promozio adostuekin zerikusia duten proiektuak aztertzea eta horiei buruzko aholkularitza teknikoa ematea, bai eta, hala badagokio, promozio horiekin zerikusia duten obren gauzatzea kudeatu, kontrolatu, eta horien jarraipen teknikoa egitea ere.

i) Sailak sustatu dituen etxebizitzak eraiki edo birgaitzeko obrekin zerikusia duten proiektu teknikoak ikuskatzea, bai eta obra horien harreren kontrol teknikoa egitea ere.

j) Sailaren sustapen zuzeneko babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazioak ematea, dagokien deskalifikazioa, baita eskubideen indargabetzea eta eskubideen birgaitzea ere, hala dagokionean, eta etxebizitza horien aldatze-, hobetze- eta erreformatze-lanak baimentzea, kalifikazioa emandakoan.

k) Irisgarritasuna sustatzea.

l) Etxegintza, birgaitzea edo berrikuntza aztertzea, ebaluatzea eta kontrolatzea.

m) Eraikuntza-kalitatea antolatu eta sustatzea, etxebizitzak eraiki eta urbanizazio-obrak egiterakoan.

n) Eraikuntzaren sektorean kalitatea, iraunkortasuna eta lan-arriskuen prebentzioa integratzeko sistemak sustatzea; azken horri dagokionez, arlo horien eskumeneko organoen eskumenak hartuko dira kontuan.

o) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategien egiaztagiriak ematea eta berritzea, eta arlo horri dagozkion lanak eta entseguak egitea.

p) Proiektuak Ikuskatzeko Bulego gisa jardutea eta Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei dagozkien eraikuntza-obren harreren kontrol teknikoa egitea, baldin eta sail horiek proiektuak ikuskatzeko berariazko zerbitzurik ez badute eta haien eskaerari jarraituz, eta sail anitzeko eraikinei dagokienez Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion eskumenak bazter utzi gabe.

q) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko Batzordea eta Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseilua bultzatu eta laguntzea.

acciones específicas en materia de rehabilitación y regeneración urbana.

e) La redacción de proyectos arquitectónicos.

f) La redacción de memorias y pliegos de bases técnicas para la contratación de obras y proyectos de obras.

g) La dirección e inspección de obras en la promoción de viviendas sociales y/o alojamientos dotacionales.

h) El examen y asesoramiento técnico de los proyectos relativos a promociones concertadas de viviendas de protección oficial impulsadas por el Departamento, así como en su caso la gestión, el control y el seguimiento técnico de la ejecución de obras relativas a dichas promociones.

i) La supervisión de los proyectos técnicos relativos a obras de edificación o rehabilitación de viviendas promovidas por el Departamento, así como el control técnico de las recepciones de dichas obras.

j) El otorgamiento de las calificaciones de las viviendas de protección oficial de promoción directa del Departamento, su descalificación, así como el decaimiento de derechos y rehabilitación del expediente cuando proceda y autorizar las obras de modificación, mejora y reforma de dichas viviendas, una vez otorgada la calificación.

k) La promoción de la accesibilidad.

l) El estudio, evaluación y control de la edificación, la rehabilitación o renovación.

m) La ordenación, fomento y verificación de la calidad constructiva en la edificación de viviendas y obras de urbanización vinculada.

n) La promoción de los sistemas integrados de calidad, sostenibilidad y prevención de riesgos laborales en el sector de la construcción, sin perjuicio, en este último caso, de las competencias de los órganos competentes en dicha materia.

o) La concesión y renovación de acreditaciones de laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación, y la realización de trabajos y ensayos en dicha materia.

p) Actuar como Oficina de Supervisión de Proyectos y efectuar el control técnico de las recepciones de las obras de edificación que afecten a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, que no cuenten con un servicio específico de supervisión de proyectos, a solicitud de los mismos, y sin perjuicio de las competencias que en materia de edificios multidepartamentales correspondan al Departamento de Justicia y Administración Pública.

q) El apoyo y la asistencia a la Comisión para el control de la calidad de la Edificación y al Consejo Vasco para la promoción de la Accesibilidad.

***12. artikulua.***– Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Aholkularitza juridikoa ematea eta arauzko proiektuak eta hitzarmenak egitea etxebizitza-politikaren arloan.

b) Zuzendaritza honen eskumenekoak diren gaietan jarritako errekurtsoak ebazteko izapideak eta proposamenak egitea. Salbuetsita geratzen dira sustapen pribatuko eta sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzen legezko erregimenaren arau-hausteengatiko eta hutsune higieniko-sanitarioengatiko zehazpen-espedienteei buruzko ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsoen ebazpen-proposamenak. Horiek Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkio dekretu honetako 8. artikuluko j) letran xedatutakoaren arabera.

c) Etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko jardueren plangintza estrategikoa eta finantza-eta aurrekontu-programazioa.

d) Etxebizitza-programaren Aurrekontu Aurreproiektuko proposamena lantzea, eta etxebizitza-programaren kudeaketa ekonomiko-finantzario eta administratiboa, Zerbitzu Zuzendaritzaren koordinazio-eskumenak bazter utzi gabe.

e) Partaidetza-sozietateen kudeaketa-informazioa integratzea eta haien jardueren jarraipena egitea.

f) Etxebizitzaren, lurzoruaren eta urbanizazioaren arloetako finantza-neurrien kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta administratiboa egitea.

g) Etxebizitza-arloko planen proposamenak, eta babestekoak diren politikak eta esparruen finantzazioko eta erregimen juridikoko programak lantzea.

h) Babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioaren proposamena.

i) Ikerlan, txosten eta argitalpen ekonomikoak egitea, etxebizitza-arloko politika eraginkorra eta koherentea ahalbidetzeko.

j) Estatistika Planean sartzekoak diren Etxebizitza Sailburuordetzari buruzko operazioak proposatzea Zerbitzu Zuzendaritzari, baita gai horiei buruzko txostenak, azterlanak eta estatistika-analisiak egitea, Sailaren Estatistika Organoaren eskumenak gorabehera.

k) Informazio-sistemen plan estrategiko eta operatiboak diseinatu eta ezartzea etxebizitza-programaren arloan, eta administrazio-informazioko sistemak di-

***Artículo 12.***– Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda.

A la Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La asistencia jurídica y la elaboración de proyectos normativos y convenios en materia de política de vivienda.

b) Tramitar y proponer las resoluciones que procedan sobre los recursos que, en las materias competencia de esta Dirección, se interpongan. Se exceptúan las propuestas de Resolución de los recursos de alzada contra las resoluciones de los expedientes sancionadores por infracciones del régimen legal de viviendas de protección oficial de promoción privada y de promoción pública y por deficiencias higiénico sanitarias que se atribuyen a la Dirección de Servicios de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 8 letra j) de este Decreto.

c) La planificación estratégica y programación presupuestaria y financiera de las actuaciones en materia de vivienda y suelo.

d) La elaboración de la propuesta de Anteproyecto de Presupuestos del programa de vivienda, y la gestión económica-financiera y administrativa del programa de vivienda, a salvo las competencias de coordinación de la Dirección de Servicios.

e) La integración y consolidación de la información de gestión y el seguimiento y control de las actuaciones de las sociedades participadas.

f) La gestión financiera y administrativa de las medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

g) La elaboración de las propuestas de los planes, programas de financiación y régimen jurídico de las políticas y ámbitos protegibles en materia de vivienda.

h) La propuesta del precio máximo de las viviendas de protección oficial.

i) La realización de los estudios, informes y publicaciones de naturaleza económica y repercusión sectorial en el ámbito de actuación de la Viceconsejería, con la finalidad de posibilitar una política eficaz y coherente en materia de vivienda.

j) La propuesta a la Dirección de Servicios de operaciones en materia de la Viceconsejería de Vivienda a incluir en el Plan de Estadística, así como la elaboración de informes, estudios y análisis estadísticos en las citadas materias, sin perjuicio de las competencias del Órgano Estadístico Específico del Departamento.

k) El diseño e implementación de planes estratégicos y operativos de sistemas de información en el área del programa de vivienda y el mantenimiento

seinatu, mantendu eta kudeatzea, sektorearen errealitatea eta haren bilakaera behar bezala ezagutzen dela bermatzeko.

l) Etxebizitza-arloan zerbitzuak emateko hobekuntza eta modernizazioko plan eta programak diseinatzea eta ezartzea, teknologia telematikoak bultzatuta, etengabeko hobekuntzako erremintak bultzatuta eta parte-hartzea bultzatuta, arlo horretan Jaurlaritzaren organo zentralek dituzten eskumenak izan ezik.

m) Hitzarmenak prestatzea eta pizgarriak esleitzea alokairuko etxebizitzak sustatzeko erakunde publiko eta pribatuekin, baita alokairu-programen kudeaketa ere.

n) Honako prozesu hauen zuzendaritza funtzionala: Etxebizitzen eskaria eta esleipena kudeatzea, auzokide-erkidegoetako alokairu-kontratuei dagokionean jabeen eta errentarien eskubideei buruzko informazioa, bitartekaritza eta kontziliazioa jabetza horizontalari dagokionean. Baita etxebizitza-arloan auzokide-erkidego eta partikularrentzako laguntza-ildoak proposatzea eta kudeatzea ere.

o) Etxebizitza-zozketak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzea, eta horiekin zerikusia duten aginduak argitaratzea.

p) Kanpo-erakundeekin (udalak, sustatzaile pribatuak, kooperatibak) koordinatzea, haien etxebizitzak esleitzeko prozesuetan laguntzeko, eta haien beharretara egokitutako datu-baseak haien esku jartzeko.

q) Sustapen pribatuko eta sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzen legezko erregimenaren arau-hausteengatiko eta hutsune higieniko-sanitarioengatiko zehazpen-espedienteei hasiera ematea eta espediente horiek ebaztea. Baita 12.000 euro arteko hertsatzeko isunak ezartzea ere.

IV. KAPITULUA
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILBURUORDETZA

***13. artikulua.***– Garraio eta Herri Lan Sailburuordetza.

Garraio eta Herri Lan Sailburuordetzari dagozkio, dekretu honen 6. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunez gain:

1.– Jardun-arlo hauen zuzendaritza eta koordinazioa:

a) Garraioaren antolaketa, plangintza eta logistika.

b) Herri-lanak.

c) Lurreko, aireko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioa.

d) Itsas gaiak eta ibaiko nabigazioa.

y gestión de sistemas de información administrativa que garanticen un adecuado conocimiento de la realidad sectorial y de su evolución.

l) El diseño e implementación de planes y programas para la mejora y modernización en la prestación de servicios en materia de vivienda, mediante el impulso de las nuevas tecnologías telemáticas, el impulso a las herramientas de mejora continua y el fomento de la participación, a salvo las competencias de los órganos centrales del Gobierno en estas materias.

m) La preparación de convenios y la adjudicación de incentivos para la promoción de viviendas en alquiler con entidades públicas y privadas, así como la gestión de los programas de alquiler.

n) La dirección funcional de los siguientes procesos: la gestión de la demanda y la adjudicación de viviendas, la mediación, información y conciliación en materia de derechos de propietarios e inquilinos sobre contratos de alquiler de comunidades de vecinos en materia de propiedad horizontal. Igualmente la propuesta y gestión de las líneas de ayudas a particulares y comunidades de vecinos en materia de vivienda.

o) La planificación, publicación de órdenes, coordinación y control de los sorteos de viviendas.

p) La coordinación con entidades externas (Ayuntamientos, promotores privados, cooperativas) para sus procesos de adjudicación de viviendas y el suministro de bases de datos adaptadas a sus necesidades.

q) El inicio y la Resolución de los expedientes sancionadores por infracciones del régimen legal de viviendas de protección oficial de promoción privada y de promoción pública y por deficiencias higiénico-sanitarias, así como la imposición de multas coercitivas hasta 12.000 euros.

CAPÍTULO IV
VICECONSEJERÍA TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

***Artículo 13.***– Viceconsejería de Transportes y Obras Públicas.

A la Viceconsejería de Transportes y Obras Públicas le corresponden, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

1.– La dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

a) Ordenación, planificación y logística del transporte.

b) Obras públicas.

c) Transportes terrestres, aéreos, marítimos, fluviales, y por cable.

d) Asuntos marítimos y navegación fluvial.

e) Portuak eta portuko jarduerak.

f) Aireportuak, heliportuak eta lurreko zerbitzuak.

g) Garraioko azpiegiturak.

g.1) Lurreko azpiegiturak: bide-sarea eta trenbide-sarea.

g.2) Itsas-ibaietako azpiegiturak: portuak, dartsenak eta barruko ur nabigagarriak.

g.3) Aireko azpiegiturak: aireportuak eta heliportuak.

g.4) Azpiegitura intermodalak.

g.5) Kable bidezko azpiegiturak.

2.– Sailburuordetzaren jardute-arloari dagozkion zigor-espedienteei hasiera eman eta ebaztea, alor bakoitzean bete beharreko arauei jarraituz beste organo batzuei dagozkienak gorabehera.

***14. artikulua.***– Garraio Zuzendaritza.

1.– Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Garraio Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioaren Plan Zuzentzailea egitea, garraio arloan jarduera instituzional pribatu eta publikoentzako orientazio-tresna izatez gain, garraioa antolatzeko eta koordinatzeko tresna ere izan dadin.

b) Merkantzien eta bidaiarien garraioen plangintza eta antolamendua, bai eta garraioen inguruko jarduera lagungarri eta osagarriena ere.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko garraioaren arloa arautzeko aurreproiektuen espedienteak eta haien goi mailako ikuskaritza burutzea.

d) Garraioa modernizatzeko planak egitea.

e) Garraio zerbitzuetarako emakida eta baimenen gainean Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko garraiorako politika logistikoak garatzea, eta, bereziki, Atlantiar Arkuaren Mugaz gaindiko Plataforma Logistikoa bultzatzea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Sare Intermodala eta garraiorako zentroak eta oinarrizko eremuak planifikatzea, eta hala badagokio, Lurraldearen Arloko Plana idaztea.

h) Garraio lanean edo garraioaren jarduera lagungarri eta osagarrietan aritzeko lanbide-gaikuntza eskuratu, egiaztatu eta kontrolatzeari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak dituen eskumenak, bai eta garraioko profesionalen prestakuntza lanen gainean dituenak ere.

e) Puertos y actividades portuarias.

f) Aeropuertos, Helipuertos y sus Servicios Terrestres.

g) Infraestructuras del transporte.

g.1) Infraestructuras terrestres: red viaria y ferroviaria.

g.2) Infraestructuras marítimas y fluviales: puertos, dársenas y aguas interiores navegables.

g.3) Infraestructuras aéreas: aeropuertos y helipuertos.

g.4) Infraestructuras intermodales.

g.5) Infraestructuras por cable.

2.– El inicio y la resolución de los expedientes sancionadores correspondientes a las áreas de actuación de la Viceconsejería sin perjuicio de las que correspondan a otros órganos en aplicación de las leyes sectoriales aplicables.

***Artículo 14.***– Dirección de Transportes.

1.– Corresponde a la Dirección de Transportes, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración del Plan Director del Transporte de la Comunidad Autónoma de Euskadi como instrumento de orientación de las acciones institucionales públicas y privadas, y de ordenación y coordinación en materia de transporte.

b) La planificación y ordenación de transporte de viajeros y mercancías y de las actividades auxiliares y complementarias del mismo.

c) La elaboración de expedientes de anteproyectos normativos y la alta inspección de los transportes competencia de la Comunidad Autónoma Vasca.

d) La elaboración de los Planes de Modernización del Transporte.

e) El ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi referentes a la concesión y autorización de los servicios de transporte.

f) El desarrollo de las políticas logísticas para el transporte en la Comunidad Autónoma especialmente el impulso de la Plataforma Logística Transfronteriza del Arco Atlántico.

g) La planificación de la Red Intermodal de la Comunidad Autónoma de Euskadi, centros y áreas básicas del transporte, redactando, en su caso, el Plan Territorial Sectorial.

h) El ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma relativas a la adquisición, acreditación y control de la capacidad profesional para la realización del transporte y de las actividades auxiliares y complementarias del mismo, así como las actividades de formación de los profesionales del sector.

i) Garraio batzorde arbitralen inguruan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenak.

j) Aireko garraioaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenak.

k) Zuzendaritzaren jarduketa eremuari dagozkion diru-laguntzak nola bideratu proposatzea.

l) Sailburuordeari laguntzea hark agindutako gai eta jarduera guztietan.

m) Sailaren ordezkari izatea autonomia erkidegoko eta autonomia erkidegoz gaindiko aholku mahaietan eta organoetan.

n) Zuzendaritzari dagozkion gaiei buruzko irizpenak eman, txostenak egin eta azterketa estatistikoak egitea.

o) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbideetako trenbide-pasaguneak jarri, aldatu eta kentzeari buruzko erabakiak hartzea.

p) Trenbideen zaintzari buruzko arauak ez betetzeagatik zigor-espedienteak izapidetzea.

2.– Merkantzia Arriskutsuen Garraioaren Koordinaziorako Euskal Batzordeari laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.

3.– Garraio Zuzendaritzari atxikita, Euskadiko Garraioaren Behatokia sortzen duen urtarrilaren 20ko 11/2004 Dekretuak ematen dizkion eginkizunak garatuko ditu Euskadiko Garraioaren Behatokiak.

4.– Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren aginduei jarraituz, Garraio Zuzendaritzak, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren administrazio-tutoretza eta gainbegiraketa gauzatuko du, bai eta Zuzendaritzari emandako ahalmenekin zerikusia duen beste sozietate publikoenak ere, sortuz gero.

***15. artikulua.***– Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.

1.– Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren aginpideko garraio-azpiegituren arloa arautzeko aurreproiektuen espedienteak egitea.

b) Azpiegituretan eta haiek mantentzean egin beharreko inbertsioen plangintza eta programazioa egitea.

c) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituren gaineko lurraldearen arloko planak egitea, eta Garraio Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea Garraioaren

i) El ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de juntas arbitrales del transporte.

j) El ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte aéreo.

k) Proponer la articulación de subvenciones correspondientes al ámbito de actuación de la Dirección.

l) Asistir al Viceconsejero o Viceconsejera en cuantas materias y actividades se le solicite.

m) Representar al Departamento en aquellos Órganos y Mesas consultivas autonómicas y supracomunitarias.

n) La elaboración de dictámenes, informes y estudios estadísticos referentes a materias propias de la Dirección.

o) Resolver sobre el establecimiento, modificación y supresión de pasos a nivel de ferrocarriles de competencia autonómica.

p) La instrucción de expedientes sancionadores por incumplimiento de la normativa vigente sobre policía de ferrocarriles.

2.– Asegurar el apoyo técnico y administrativo a la Comisión Vasca de Coordinación del Transporte de Mercancías Peligrosas.

3.– Adscrito a la Dirección de Transportes, el Observatorio del Transporte de Euskadi desarrollará las funciones que le atribuye el Decreto 11/2004, de 20 de enero, por el que se crea el Observatorio del Transporte de Euskadi.

4.– Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, la Dirección de Transportes ejercerá la tutela administrativa y la supervisión de la sociedad pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vasco, S.A., así como de aquellas otras sociedades públicas que puedan crearse en relación con las facultades atribuidas a dicha Dirección.

***Artículo 15.***– Dirección de Infraestructura del Transporte.

1.– Corresponde a la Dirección de Infraestructura del Transporte, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, las siguientes funciones:

a) La elaboración de expedientes de anteproyectos normativos en materia de infraestructura del transporte de competencia de la Comunidad Autónoma.

b) La planificación y programación de inversiones en infraestructuras y de su mantenimiento.

c) La elaboración de planes territoriales sectoriales de infraestructura del transporte terrestre y aéreo, colaborando con la Dirección de Transportes en la rea-

Plan Zuzentzailea eta Lurraldearen Arloko Plana egiteko.

d) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako jarduerak burutzeko behar diren hirigintza antolamenduko planak eta bestelako langaiak egin eta aldarazteko ekimena.

e) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako proiektuak egin eta onartzeko ekimena.

f) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako obrak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea.

g) Bilboko metropoli-trenbideari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren aginpidekoak diren proiektu, obra eta bestelako jarduketak egitea.

h) Lurreko eta aireko azpiegituren arloan jardunak egikaritzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak desjabetzea, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskumenak aparte utzi gabe.

i) Autonomia Erkidegoaren trenbideen jabari publikoko eremuan obrak eta instalazioak egiteko baimenak emateari buruzko erabakiak hartzea, horrek ezertan galarazi gabe, Euskadiko ondareari dagokionez, kasuan kasuko organoek dauzkaten ahalmenak.

j) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituraren alorreko ikerketa eta teknologia garapena bultzatzea.

k) EAEko Errepideen Plan Orokorraren Sareko errepideen mailaketa eta izenen gaineko proposamenak egitea eta euskal administrazioen titularitateko bide-sareko gainontzeko errepideen koordinazioa bultzatzea, kasuan kasuko administrazioekiko elkarlanean.

l) EAEko Errepideen Plan Orokorra arautzeko proiektuen espedienteak eta lurreko eta aireko garraioaren gaineko azpiegituren arloko planen Aurrerapena eta Proiektua egitea.

m) EAEko Errepideen Plan Orokorra eta arloko planak berraztertzeko behar diren jarduketak egin eta plan horien ohizko zein aparteko aldaketak prestatu eta proposatzea.

n) Lurralde Historikoetako foru organoek bideen plangintza eta koordinazioaren gainean egiten dituzten proposamenei buruzko txostenak egitea, EAEko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legean aurreikusi bezalaxe.

o) EAEko Errepideen Plan Orokorra eta lurreko eta aireko garraioaren azpiegituren gaineko arloko planak gainbegiratzea, programa eta arau teknikoei dagokienez egoki burutzen ari den zaintzea eta plan

lización del Plan Director de Transportes y del Plan Territorial Sectorial.

d) La iniciativa de elaboración y modificación de los planes e instrumentos de ordenación urbanística precisos para las actuaciones en materia de infraestructura del transporte, terrestre y aéreo.

e) La iniciativa de elaboración y aprobación de proyectos de infraestructura del transporte terrestre y aéreo.

f) La dirección, inspección y el control de la ejecución de infraestructura del transporte terrestre y aéreo.

g) La realización de los proyectos, obras y demás actuaciones de competencia de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco relacionadas con el Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.

h) La expropiación de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las actuaciones en materia de infraestructura terrestre y aéreo, sin perjuicio de las competencias del Consejo de Gobierno.

i) Resolver sobre la concesión de autorizaciones de obras e instalaciones en la zona de dominio público de los ferrocarriles autonómicos, sin perjuicio de las facultades que, en su caso, correspondan a otros órganos sobre el patrimonio de Euskadi.

j) La promoción de la investigación y el desarrollo tecnológico en materia de infraestructura del transporte terrestre y aéreo.

k) Efectuar propuestas sobre jerarquización y nomenclatura de la Red Objeto del Plan General de Carreteras del País Vasco, y para la coordinación de las del resto de la red viaria de titularidad de las administraciones vascas, en coordinación con las administraciones afectadas.

l) La elaboración de los expedientes de proyectos normativos referentes al Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales, así como la elaboración de los Avances y los Proyectos de los citados Planes Sectoriales de Infraestructuras del transporte terrestre y aéreo.

m) Las actuaciones precisas para la revisión del Plan General de Carreteras del País Vasco y de los Planes Sectoriales, así como la preparación y propuesta de modificaciones ordinarias y extraordinarias de dichos Planes.

n) Informar las propuestas que los órganos forales de los Territorios Históricos expongan en materia de planificación y de coordinación viaria, en los términos previstos en la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

o) Efectuar el seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales de Infraestructura del transporte terrestre y aéreo, velar por la idoneidad de su ejecución en cuanto a pro-

hori behar bezala burutzeko beste administrazio batzuekiko koordinazioa sustatzea.

p) EAEko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeari eta, hala badagokio, Azpiegituren Arloko Planen batzordeei laguntza tekniko eta administratiboa ematea.

q) EAEko Errepideen Plan Orokorra eta lurreko eta aireko garraioaren arloko planak lurralde eta hirigintza planeamenduarekin eta ukitzen dituen gainontzeko plangintza sektorialekin uztartzea, horrek ezertan galarazi gabe gainontzeko sailen ahalmenak.

r) Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainontzeko lurralde administrazioen artean errepide, trenbide eta aireportuei buruzko gaietako lankidetza eta koordinazio ekonomiko, tekniko eta administratiboa gauzatzeko bideak proposatu eta prestatzea.

s) Saileko gainontzeko zuzendaritzek hala eskatuz gero, proiektuak ikuskatzeko bulego gisa jardutea eta obren proiektuak erredaktatu eta zuzentzeko laguntza teknikoa ematea.

t) Gainontzeko sailek eskatuz gero, eraikuntzakoak ez diren herri-lanen proiektuak egin eta kontratuak egiteko laguntza teknikoa ematea.

u) Zuzendaritzari dagozkion gaietarako dirulaguntzak emateko bideak proposatzea.

v) Zuzendaritzari dagozkion gaiei buruzko irizpenak eman, txostenak egin eta azterketa estatistikoak egitea.

2.– Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren aginduei jarraituz, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak harremanak izango ditu Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoarekin, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikitako erakunde instituzionala den aldetik, eta indarreko araudian horri buruz aurreikusten diren koordinazio-, gainbegiratze- eta kontrol-eginkizunak ere gauzatuko ditu.

***16. artikulua.***– Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak egikaritu behar ditu Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak, baita honako eginkizun hauek ere:

a) Portuko jabari publikoa antolatzea.

b) Autonomia Erkidegoaren portu azpiegituretako inbertsioen plangintza eta programazioa egin eta haiek mantentzeaz arduratzea, bai eta portu azpiegitura berrien plangintza egin eta garatzea ere.

gramas y normas técnicas, e impulsar la coordinación con otras administraciones cuando sea necesaria para la ejecución de los citados Planes.

p) Asegurar el apoyo técnico y administrativo a la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco y de las Comisiones, en su caso, de los Planes Sectoriales de Infraestructuras.

q) La incardinación del Plan General de Carreteras del País Vasco y de los Planes Sectoriales de Infraestructura del transporte terrestre y aéreo con el planeamiento territorial y urbanístico, así como con las demás planificaciones sectoriales a que afecte, sin perjuicio de las facultades de otros departamentos.

r) La propuesta y preparación de los instrumentos de cooperación y de coordinación económica, técnica y administrativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco con las demás administraciones territoriales en materia de carreteras, ferrocarriles y aeropuertos.

s) A instancia de las demás Direcciones del Departamento, actuar como oficina de supervisión de proyectos y prestar apoyo técnico para la redacción de proyectos y la dirección de obras.

t) A petición de los demás Departamentos, colaborar técnicamente con los mismos en la proyección y contratación de obras públicas que no sean de edificación.

u) Proponer la articulación de subvenciones en materias propias de la Dirección.

v) La elaboración de dictámenes, informes y estudios estadísticos referentes a materias propias de la Dirección.

2.– Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas la Dirección de Infraestructura del Transporte mantendrá las relaciones con el Ente Público Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca, en cuanto Entes Institucional adscrito al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, ejerciendo, asimismo, las funciones de coordinación, supervisión y control que respecto al mismo se prevea en la normativa en vigor.

***Artículo 16.***– Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

1.– En el ámbito de competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, las siguientes funciones:

a) La Ordenación del Dominio Público Portuario.

b) La planificación y programación de inversiones en infraestructuras portuarias de titularidad autonómica y de su mantenimiento así como la planificación y desarrollo de nuevas infraestructuras portuarias.

c) Portuetako Lurraldearen Plan Sektoriala erredaktatu eta taxutzea; lurralde eta hirigintza planeamendu orokorra garatuz portuko jabari publikoa osatzen duten zonaldeak antolatzeko edo azpiegitura obrak zuzenean egiteko planak erredaktatzea.

d) Portualdean eragina izango duten hirigintza-planeamenduko tresnei buruzko txosten lotesleak egitea, aginpidedun hirigintzazko Administrazioak egindako txostenei buruzkoak, hain zuzen.

e) Onartutako plan eta programen barruan, halakorik balego, obra eta instalazioetarako proiektuak onartzea, haiek burutzea eta idazteko ekimena.

f) Portu azpiegiturako obra eta instalazioak egiten direla ikuskatu eta kontrol tekniko eta ekonomikoa gauzatzea.

g) Portu azpiegituren alorreko ikerketa eta teknologien garapena bultzatzea.

h) Desjabetze-ahalmena baliatzea Zuzendaritzari esleitutako jardunak egikaritzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskumenak bazter utzi gabe.

i) Zuzendaritzaren esku dauden gaiei ezarri beharreko legeria bete dadin, beste administrazioekin eta gainontzeko pertsona publiko nahiz pribatuekin behar diren hitzarmen eta lankidetza bideak proposatu eta burutzea.

j) Portuetako zerbitzu aldeak nola erabili behar diren arautu eta haien garapenaren plangintza eta programazioa egitea, lurraldea antolatzeko eta hirigintza planifikatzeko tresnen arabera.

k) Portu bakoitzaren Zerbitzu eta Zaintzari buruzko Araudiak egitea eta araudi hori betetzen den zaintzea, eraginpean dauden administrazio eskudunekin koordinatuta.

l) Zuzendaritzaren esku dauden gaietako legeria hausteagatik zabaldu beharreko zigor-espedienteak izapidetzea.

m) Indarrean dagoen araudian aurreikusten diren portuko zerbitzuak ematea, ordenamendu juridikoan arauturiko kudeaketaren bidez.

n) Portuko jabari publikoen gaineko emakidak eta baimenak eman, aldatu eta iraungitzeari buruzko espedienteak izapidetu eta haiei buruzko erabakiak hartzea.

o) Portuko jabari publikoa norberarentzat erabili edo haren ustiaketa berezia egiteagatik eta portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatik ordaindu beharreko tasen kopurua proposatzea eta haien likidazioa.

p) Euskal Autonomia Erkidegoari itsas- eta ibai-garraioaren eta barruko ur nabigagarrien inguruan dagozkion eskumenak.

c) La redacción y formulación del Plan Territorial Sectorial de Puertos, así como la redacción de los Planes de ordenación urbanística de las zonas portuarias previstos en el ordenamiento en desarrollo del planeamiento territorial y urbanístico o para la ejecución directa de obras de infraestructura.

d) Informar con carácter vinculante los instrumentos de planeamiento urbanístico general que afecten a la zona portuaria redactados por la Administración urbanística competente.

e) La iniciativa de redacción y la aprobación de proyectos y ejecución de las obras e instalaciones portuarias, en el marco de los planes y programas aprobados, en su caso.

f) La inspección y control técnico-económico de la ejecución de obras e instalaciones de infraestructura portuaria.

g) La promoción de la investigación y el desarrollo tecnológico en materia de infraestructuras portuarias.

h) Ejercer la potestad expropiatoria para la ejecución de actuaciones atribuidas a la Dirección, sin perjuicio de las competencias del Consejo de Gobierno.

i) Proponer y ejecutar los convenios y los instrumentos de cooperación con otras administraciones y demás personas públicas o privadas precisos para el cumplimiento de la legislación de aplicación a las materias propias de la Dirección.

j) Ordenar los usos de las zonas de servicio de los puertos y planificar y programar su desarrollo de acuerdo con los instrumentos de ordenación del territorio y de planificación urbanística aprobados.

k) La elaboración de los Reglamentos de Servicios y Policía de cada puerto, y la vigilancia de su cumplimiento en coordinación con las administraciones afectadas y competentes.

l) La instrucción de los expedientes sancionadores por infracción de la legislación aplicable a las materias propias de la Dirección.

m) Prestar los servicios portuarios previstos en la normativa vigente, a través de las formas de gestión reguladas en el ordenamiento jurídico.

n) Tramitar y resolver los expedientes de otorgamiento, modificación y extinción de autorizaciones y concesiones referentes al dominio público portuario.

o) Proponer la cuantía de las tasas portuarias a satisfacer por utilización privativa o aprovechamiento especial del domino público portuario y por la prestación de servicios generales y específicos, así como su liquidación.

p) El ejercicio de las competencias que correspondan a la Comunidad Autónoma en materia de transporte marítimo y fluvial y aguas interiores navegables.

q) Itsas garraioko profesionalen birziklaketa eta hobekuntzarako irakaskuntzak, Sailaren eskumenekoak badira, Itsas Arduralaritza Eskolak ematen dituenak barne, azaroaren 5eko 616/1991 Dekretuari jarraituz; baita Eskola horren zerbitzu ezberdinek eskaintzen dituzten jardueren prezio publikoen zenbatekoen proposamena ere.

r) Honako plan hauek landu eta onartzea: barne-larrialdietako planak, istripuen ondoriozko itsasoko kutsadura kasuetarako plana, portuetan ontzietako hondakinak biltzeko eta babesteko planak eta araudiak eskatutako bestelako planak ere.

s) Itsas-garraioak Garraioaren Plan Zuzentzailean eta Sare Intermodalen Sisteman parte hartzeko proposamena egitea.

t) Zuzendaritzaren ardurapeko gaiei dagozkien diru-laguntzak nola eman proposatzea eta Kostaldearen Legeak arauturiko herri-lanak euskal itsasertzean egiteko beste administrazio batzuekiko elkarlanean jarduteko diru-laguntzak nola eman proposatzea.

u) Zuzendaritzarekin zerikusi zuzena duten azterlan estatistikoak, txostenak eta ikerketak egitea.

v) Itsas-garraioari dagokionean, itsas-garraioak Atlantiar Arkuaren Plataforma Logistikoan eta Garraioaren Plan Zuzentzailean parte hartu eta esku hartzeko proposamena egitea.

w) Zuzendaritzari dagozkion gaiei buruzko txosten, irizpen eta xedapen arauemaileen aurreproiektuen gaineko espedienteak burutzea.

x) Herri-lanak zuzendu edo ikuskatzeko adituen lana burutzeagatiko tasa orokorra edo Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak ordainaraztekoa den beste edozein tasa kitatzea.

y) Lurralde zerbitzuek kudeatu dituzten tasa eta prezio publikoen kudeaketaren kontra aurkeztutako aukerako berraztertzeko errekurtsoak ebaztea.

2.– Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren aginduei jarraikiz, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak, gainera, «Euskadiko Kirol Portua SA» eta «Zumaiako Kirol Portua SA» sozietate publikoei administrazio-babesa eman eta haien kudeaketa ikuskatuko du, eta gauza bera egingo du Zuzendaritzari emandako ahalmenekin zerikusia duen beste sozietate publikorik sortuz gero.

q) Las enseñanzas correspondientes al reciclaje y perfeccionamiento de los profesionales del transporte marítimo que sean competencia del Departamento, incluidas las impartidas por la Escuela de Administración Marítima conforme al Decreto 616/1991, de 5 de noviembre, así como la propuesta de cuantías de los precios públicos de las actividades que prestan los diferentes servicios de dicha Escuela.

r) La elaboración y aprobación de planes de emergencia interior, planes de contingencia por contaminación marina accidental, planes de protección y planes de recogida de residuos procedentes de buques en los puertos, así como de aquellos otros exigidos por el ordenamiento.

s) La propuesta de participación del transporte marítimo en los Sistemas de Redes Intermodales y en el Plan Director del Transporte.

t) Proponer la articulación de subvenciones en materias propias de la Dirección, así como para la cooperación con otras administraciones para la ejecución en el litoral vasco de obras públicas reguladas en la Ley de Costas.

u) Desarrollar estudios estadísticos, informes e investigaciones relacionadas con las materias propias de la Dirección.

v) En relación con el transporte marítimo la propuesta de intervención y participación del transporte marítimo en la Plataforma Logística del Arco Atlántico y en el Plan Director de Transportes.

w) Elaborar los expedientes de anteproyectos de disposiciones normativas, dictámenes e informes en materias propias de la Dirección.

x) La liquidación de tasas de carácter general por realización de trabajos facultativos de dirección e inspección de obras públicas u otras tasas cuya exacción correspondiera a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

y) La Resolución de los recursos de reposición potestativos que se interpongan contra actos de gestión de las tasas llevados a cabo por los servicios territoriales.

2.– Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos ejercerá la tutela administrativa y la supervisión de la gestión de las sociedades públicas «Euskadiko Kirol Portua, S.A.» y «Zumaiako Kirol Portua, S.A.», así como de aquellas otras sociedades públicas que puedan crearse en relación con facultades atribuidas a la Dirección.

V. KAPITULUA
ORGANO PERIFERIKOAK

***17. artikulua.***– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Lurralde Ordezkaritzak.

Lurralde Historiko bakoitzean Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza bat izango da, eta horren buruan lurralde-ordezkari bat egongo da. Etxebizitzako sailburuordearen mendeko organikoa izango da, eta dagokion zuzendariaren mendeko funtzionala. Honako eginkizun hauek esleitu zaizkio:

a) Legeak eta xedapenak betetzen direla zaintzea, honako arlo hauetan Sailari esleitutako eskumenei dagokienez: lurzoru eta hirigintza, etxebizitza, arkitektura, eraikuntzako iraunkortasuna eta kalitatea eta irisgarritasunaren sustapena.

b) Lurralde Ordezkaritzaren zerbitzu orokorren administrazioa eta hura osatzen duten administrazio-dependentzia eta -unitateen jardueren koordinazioa.

c) Euskadiko Ondareari buruzko Testu Bategina onesteko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak bigarren xedapen gehigarria eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak etxebizitzari eta lurzoruari dagokienez emandako ebazpenak aplikatzearen ondorioz sortuko diren egoera juridikoak gauzatzeko beharrezkoak izango diren eskritura guztiak egilestea.

d) Babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazioak ematea, dagokien deskalifikazioa, baita eskubideen indargabetzea eta eskubideen birgaitzea ere, hala dagokionean, eta etxebizitza horien aldatze-, hobetze- eta erreformatze-lanak baimentzea, kalifikazioa emandakoan, eta hori guztia dekretu honen 11, j) artikuluan Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzari onartutako eskumena bazter utzi gabe. Era berean, onartutako proiektu-aldaketei buruz ebaztea sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa.

e) Premia nabarmeneko arrazoiak direla-eta, etxebizitza-erregimen aldaketa ebaztea, baita ofizialki babestutako etxebizitza eta lokalen erabilera-aldaketa ere.

f) Sustatzaileei luzapena emateari buruz ebaztea behin-behineko kalifikazioan finkatutako lanen egikaritzapen-epean, erosleei edo errentatzaileei sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak emateko epean eta salerosketako eskritura publikoa sinatzeko epean.

CAPÍTULO V
ÓRGANOS PERIFÉRICOS

***Artículo 17.***– Delegaciones Territoriales de Vivienda del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

En cada uno de los Territorios Históricos existirá una Delegación Territorial de Vivienda, a cuyo frente figurará un/a Delegado/a Territorial que, bajo la dependencia orgánica del/la Viceconsejero/a de Vivienda y funcional de los/as Directores/as respectivos, tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) La vigilancia del cumplimiento de las leyes y disposiciones en lo que se refiere a las competencias atribuidas al Departamento en materia de Suelo y Urbanismo, Vivienda, Arquitectura, Edificación, Sostenibilidad y Calidad en la Construcción y Promoción de la Accesibilidad.

b) La administración de los servicios generales de la Delegación Territorial y la coordinación de las actividades de las dependencias y unidades administrativas que la integran.

c) El otorgamiento de cuantas escrituras sean necesarias para la formalización de las situaciones jurídicas originadas como consecuencia de la aplicación de la Disposición Adicional Segunda del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, así como de las resoluciones adoptadas por el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en materia de vivienda y suelo.

d) El otorgamiento de las calificaciones de las viviendas de protección oficial, su descalificación, así como el decaimiento de derechos y rehabilitación del expediente, cuando proceda y autorizar las obras de modificación, mejora y reforma de dichas viviendas, una vez otorgada la calificación, todo ello, sin perjuicio de la competencia reconocida a la Dirección de Vivienda, Innovación y Control en el artículo 11, j) del presente Decreto. Asimismo, resolver sobre modificaciones de proyecto aprobado en la calificación provisional de viviendas de protección oficial de promoción privada.

e) Resolver por razones de necesidad notoria, el cambio de régimen de vivienda, así como el cambio de uso de viviendas y locales protegidos oficialmente.

f) Resolver sobre la concesión de la prórroga a los promotores en el plazo de ejecución de las obras fijado en la calificación provisional, en el plazo de entrega de las viviendas de protección oficial de promoción privada a los compradores o arrendadores, y en el plazo del otorgamiento de la escritura pública de compraventa.

g) Lanetarako udal-lizentzia eskatzea Sailak zuzenean sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak eraiki eta konpontzeko.

h) Babes ofizialeko parkearen ikuskapena.

i) Sustapen pribatuko eta sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzen legezko erregimenaren arauhausteengatiko eta etxebizitzen hutsune higieniko-sanitarioengatiko zehazpen-prozeduren ikuskapena eta instrukzioa, prebentziozko eta kautelazko neurriak hartuta. Horretarako, lurralde-ordezkaritzetan administrazio-unitate berezi bat egongo da, zehapen-prozedura guztiak instruitzeko ardurarekin.

j) Behin-behineko kalifikazioa indarrean dagoen bitartean, sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzen guztizko prezioaren konturako diru-laguntzak jasotzeko aukera baimentzea.

k) Sustatzaileari banku-abala edo aseguru-kontratua itzultzeari buruz ebaztea, behin betiko kalifikazioa emandakoan edo lanak legezko epearen barruan amaitutakoan.

l) Sustapen publikoko etxebizitzetan, etxebizitza horien amortizazio aurreratua baimentzea, baita utzarazpen administratiboko espedienteak ebaztea ere etxebizitzen, merkataritza-lokalen eta eraikuntza osagarrien okupatzaileen aurka, betiere horiek guztiak Autonomia Erkidegoaren jabetzakoak badira, abiaraztea eta beharrezkoak diren neurri guztiak egikarituz. Era berean, dagozkion salaketak jartzea Euskal Autonomia Erkidegoaren jabetzako etxebizitza eta lokalak bidegabe okupatzeagatik.

m) Azaroaren 20ko 8/1987 Legeak sortutako Euskadiko Balorazio Batzorde Teknikoari eta Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiei administrazio-euskarria ematea.

n) Hiri-etxebizitzen jabe eta errentatzaileen eskubide eta obligazioen arloko informazio-eginkizunak, baita kontratuen bisatu ofiziala eta erregistroa ere indarrean dagoen araudiak hori eskatzen duenean, Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialetako langileen eta ondarearen erregimenari eta destinoari buruzko urtarrilaren 30eko 15/2006 Dekretuaren 2. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera; baita bitartekotza eta adiskidetzekoak ere higiezinen jabeen eta horien eta maizterren artean sortzen diren gorabeheretarako, alderdi interesdunen aldez aurreko akordioarekin eta horien araudi erregulatzaileari jarraiki.

o) Gazteentzako emantzipazioko oinarrizko errenta osatzen duten Estatuko laguntzen kudeaketarekin lotutako eginkizunak, azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuan eta haren ondorengo zuzenketetan erregulatutakoak.

g) Solicitar licencia municipal de obras para la construcción y reparación de viviendas de protección oficial de promoción directa por el Departamento.

h) La inspección del parque de vivienda protegida.

i) La inspección e instrucción de los procedimientos sancionadores por infracciones del régimen legal de viviendas de protección oficial de promoción privada y del de promoción pública y por deficiencias higiénico-sanitarias de las viviendas, adoptando las medidas de carácter preventivo o cautelar. A tal fin en las delegaciones territoriales existirá una unidad administrativa especial responsable de la instrucción en todos los procedimientos sancionadores.

j) Autorizar durante la vigencia de calificación provisional, la percepción de cantidades a cuenta del precio total de las viviendas de protección oficial de promoción privada.

k) Resolver sobre la devolución del aval bancario o contrato de seguro, al promotor, una vez otorgada la calificación definitiva o terminadas las obras dentro del plazo legal.

l) En las viviendas de promoción pública, autorizar la amortización anticipada de dichas viviendas, así como resolver los expedientes de desahucio administrativo contra los ocupantes de viviendas, locales comerciales y edificaciones complementarias, propiedad de la Comunidad Autónoma, ejecutando en su caso el lanzamiento y cuantas medidas sean precisas. Del mismo modo, interponer las denuncias correspondientes por ocupación indebida de viviendas y locales propiedad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

m) El soporte administrativo a la Comisión Técnica de Valoración de Euskadi y a los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa, creados por la Ley 8/1987, de 20 de noviembre, sobre creación de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa.

n) Las funciones de información en materia de derechos y obligaciones de los propietarios y arrendatarios de viviendas urbanas, así como el visado oficial y registro de contratos de arrendamiento cuando así sea exigido por la normativa vigente, según lo establecido en la Disposición Adicional 2.ª del Decreto 15/2006, de 30 de enero, sobre régimen y destino del personal y patrimonio de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana; así como las de mediación y conciliación en las cuestiones que surjan entre los propietarios inmobiliarios y entre éstos y los inquilinos, previo acuerdo con las partes interesadas y de conformidad con su normativa reguladora.

o) Las funciones relacionadas con la gestión de las ayudas estatales que configuran la renta básica de emancipación a los jóvenes, reguladas en el RD 1472/2007, de 2 de noviembre, y sus posteriores modificaciones.

p) Indarreko antolamendu juridikoak ematen dizkien gainerako eskumen, prerrogatiba eta eginkizunak.

***18. artikulua.***– Portuen Lurralde Zerbitzuak.

Bizkaia eta Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuek honako eginkizun hauek izango dituzte beren lurraldean dauden portuetan:

a) Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak adierazitako portuetako obrak zuzentzea.

b) Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak adierazitako portuetako obra eta instalazio proiektuak idaztea.

c) Portuko jabari publikoa norberarentzat erabiltzeagatik edo ustiaketa berezia egiteagatik eta portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatik ordaindu beharreko tasen kudeaketa, eta likidazio proposamena egitea.

d) Herri-lanak zuzendu edo ikuskatzeko adituen lana burutzeagatiko tasa orokorra edo Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak ordainaraztekoa den beste edozein tasa kudeatzea eta horiek kitatzeko proposamena egitea.

e) Lurralde zerbitzuek kudeatu dituzten tasa eta prezio publikoen kudeaketaren kontra aurkeztutako aukerako berraztertzeko errekurtsoei buruzko txostena egitea.

f) Zuzendaritzak izapidetutako emakidak eta baimenak eman, aldatu eta iraungitzeko espedienteen gaineko txostenak egitea, bai eta indarrean dagoen legedian ezarritako kasuetan eta Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak eskatuz gero.

g) Emakidak eta baimenak hartu dituztenek kasuan kasuko agirietan jasotako baldintzak betetzen dituztela zaindu eta kontrolatzea, portualdeak eta bertako erabilpen eta jarduerak zaindu eta kontrolatzea, bai eta portu bakoitzeko zerbitzu eta zaintza arautegietan ezarritakoa betetzen dela begiratu eta kontrolatzea ere; indarrean dagoen legeria ez betetzeagatiko salaketak izapidetzea.

h) Oro har, portuko erabilpen eta instalazioak antolatzeko gaietan ezarritakoa betetzeko eta portuko jabari publikoa kudeatu, ustiatu eta mantentzeko behar diren ekintzak egitea.

p) Todas las demás facultades, prerrogativas y funciones que les atribuyan el ordenamiento jurídico en vigor.

***Artículo 18.***– Los Servicios Territoriales de Puertos.

Los Servicios Territoriales de Puertos de Bizkaia y Gipuzkoa tendrán a su cargo, en los puertos comprendidos en su territorio, las siguientes funciones:

a) La dirección de la ejecución de obras portuarias que señale el Director de Puertos y Asuntos Marítimos.

b) La redacción de proyectos de obras e instalaciones portuarias que señale el Director de Puertos y Asuntos Marítimos.

c) La gestión de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público portuario y por la prestación de servicios generales y específicos en los puertos, así como la propuesta de liquidación.

d) La gestión de la tasa de carácter general por realización de trabajos facultativos de Dirección e Inspección de Obras Públicas u otras tasas cuya exacción correspondiera a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, proponiendo su liquidación.

e) La emisión de informe en relación con los recursos de reposición potestativos que se interpongan contra actos de gestión de las tasas gestionadas por los Servicios Territoriales.

f) La emisión de informe en los expedientes de otorgamiento, modificación o extinción de concesiones y autorizaciones que se tramiten en la Dirección, así como en los casos previstos en la legislación vigente o cuando lo recabe el Director de Puertos y Asuntos Marítimos.

g) La vigilancia y control del cumplimiento por los concesionarios o titulares de autorizaciones de las condiciones que figuren en los correspondientes títulos, la vigilancia y control de las zonas portuarias y de los usos y actividades que en ellas se desarrollan así como del cumplimiento de lo establecido en los reglamentos de servicio y policía de cada puerto, y tramitar las denuncias por infracción de la legislación vigente.

h) En general, la realización material de todas aquellas acciones necesarias para el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en materia de ordenación de los usos e instalaciones portuarias, así como para llevar a efecto la gestión, explotación y mantenimiento del dominio público portuario.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– Ordezkapenen araubidea.

Sailburu, zuzendari eta lurralde-ordezkarien hutsuneen, absentzien edo gaixotasunen kasuetan, honako ordezkotza hauei jarraituko zaie:

a) Sailburuordeei esleitutako eskumen eta eginkizunak haien mendeko Zuzendariek beteko dituzte, egituran ageri diren ordenaren arabera.

b) Zuzendari eta lurralde-ordezkariei esleitutako eskumenak eta eginkizunak nagusi hierarkiko hurrenak beteko ditu, hurrengo atalean ezarritakoari dagokionez izan ezik.

c) Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako eskumenak eta eginkizunak sailburuak izendatuko duenak beteko ditu.

***Bigarrena***.– Kudeaketarako gomendioak bitarteko propioei.

Saileko kontratazio-organoak eskumena izango dute, baldintza berberetan, obrak gauzatzeko kudeaketa-gomendioa egiteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan aurreikusita dagoen moduan.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Hasitako espedienteen erregimen iragankorra.

Une honetan izapidetzen ari diren eta dekretu honetan esleitutako eskumen eta eginkizunei dagozkien espedienteei dagokienez, dekretu horretan ezarritako organoek izapidetu eta ebatziko dituzte, gaiaren arabera.

***Bigarrena***.– Estatistikarako Organo Bereziaren eginkizunak hartzeko erregimen iragankorra.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Estatistika Organoa sortuko duen Dekretua onartzen ez den bitartean, desagertutako Garraio eta Herri Lan Sailaren Estatistika Organoak (Irailaren 11ko 144/2007 Dekretu bidez sortu zen eta bere funtzionamendua ezarri) hartuko ditu beren gain Etxebizitza Sailburuordetzari buruzko eginkizunak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organoa sortu eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen duen ekainaren 20ko 129/2006 Dekretuan bildutakoak, hain zuzen.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– Régimen de suplencias.

En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de los Viceconsejeros/as, Directores/as y Delegados/as Territoriales, se seguirán las siguientes reglas de suplencia:

a) Las competencias y funciones atribuidas a los/as Viceconsejeros/as serán ejercidas, por los Directores y las Directoras de ellos dependientes, por el mismo orden en que aparecen en su respectiva estructura.

b) Las competencias y funciones atribuidas a los Directores y Directoras y Delegados y Delegadas Territoriales serán ejercidas por el superior jerárquico inmediato, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

c) Las competencias y funciones atribuidas a la Dirección de Servicios serán ejercidas por quien determine el Consejero o la Consejera.

***Segunda***.– Encomiendas de gestión a medios propios.

Los órganos de contratación del Departamento serán también competentes, en las mismas condiciones, para la encomienda de gestión de ejecución de obras y prestación de servicios en los términos previstos en los artículos 4.1.n) y 24.6 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– Régimen transitorio de los expedientes iniciados.

Los expedientes que actualmente se encuentren en tramitación y se refieran a las competencias y funciones atribuidas en el presente Decreto, se tramitarán y resolverán por los órganos que en el mismo se establecen, en función de la materia de que se trate.

***Segunda***.– Régimen transitorio de asunción de funciones del Órgano Estadístico Específico.

Mientras no se apruebe el Decreto de creación del órgano estadístico específico del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, el Órgano Estadístico Específico del extinto Departamento de Transportes y Obras Públicas creado por el Decreto 144/2007, de 11 de septiembre, por el se establece su organización y funcionamiento asumirá las funciones referidas a la Viceconsejería de Vivienda contenidas en el Decreto 129/2006, de 20 de junio, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y se establece su organización y funcionamiento.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratuko da dekretu honetan ezarritakoaren aurka dagoen maila bereko edo txikiagoko beste edozein xedapen; eta zehazki, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan jasotako Lurzoru eta Hirigintzako, Etxebizitzako, Arkitekturako, Etxegintzako, Eraikuntzako Iraunkortasun eta Kalitateko eta Irisgarritasunaren Sustapeneko arlo eta eginkizunei buruzko guztian.

Era berean, indargabetuta geratuko dira Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretua eta aurreko hori aldatzen duen maiatzaren 25eko 97/2004 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren aldaketa.

Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 34. artikuluaren 2. paragrafoa aldatu egin da, eta honela geratuko da idatzita:

«2.– Plikak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan, Lurzoru eta Hirigintza zuzendariak ebazpena emango du, deialdiaren onurak eskaintza onuragarrienari emanez, edota deialdia eman gabe utziz.

Onurak esleitzeko, deialdiari dagozkion pleguetan finkatutako irizpideen arabera baloratuko dira aurkeztutako proposamenak.»

***Bigarrena***.– Dekretua garatzea.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari eskumena ematen zaio dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan, bai eta, bidezko txostenak aztertu ondoren, Zuzendaritzaren azpiko mailako unitate organikoak elkartu, sortu edo kentzeko ere, betiere horrek gastua handitzea ez badakar.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo establecido en el presente Decreto; y, en concreto, todo aquello relativo a las áreas y funciones de Suelo y Urbanismo, Vivienda, Arquitectura, Edificación, Sostenibilidad y Calidad en la Construcción y Promoción de la Accesibilidad del Decreto 373/2005, de 15de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Asimismo quedan derogados el Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas y el Decreto 97/2004, de 25 de mayo, de modificación del anterior.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Modificación del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

Se modifica el apartado 2 del artículo 34 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo que queda redactado como sigue:

«2.– Dentro de los tres meses siguientes a la finalización del plazo de presentación de plicas, el Director de Suelo y Urbanismo dictará Resolución concediendo los beneficios integrantes de la convocatoria a aquella propuesta que resultara más ventajosa o declarándola desierta.

Para la adjudicación de beneficios se procederá a la valoración de las propuestas presentadas con arreglo a los criterios establecidos en los correspondientes pliegos de la convocatoria.»

***Segunda***.– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero o Consejera de Vivienda, Obras Públicas y Transportes para dictar cuantas disposiciones fuesen necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto, así como para, previos los informes preceptivos correspondientes, agrupar, crear o suprimir unidades orgánicas de rango inferior a Dirección, siempre que ello no suponga un incremento de gasto.

***Hirugarrena***.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko azaroaren 24an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

***Tercera***.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.